

Non da Wally?

Aspaldian ez dugu inon ikusten; ez dugu inon bere hizketa xelebrea aditzen. Eta hobe horrela, bururatzen zaigu bapatean. Euskal abertzale eta nazionalisten kontrako diskurtsu bortitza egiteko ahoa zen berea. Inork baino minutu gehiago zituen komunikabide gehienetan. Baina inoren ideologiaren aurkakoa baino giza adimenari egindako irain gogorra zen bere hizketaldi bakoitza. Sinesgaitza zen halako pertsonaia inongo alderdiren bozemaile izatera hel zitekeenik. Euskaraz nahiz gaztelaniaz, gauza ziurra zen ez zuela perpaus zuzena egiten asmatuko. Gogorik lasaia ere urduritasun larrienaz jotzeko gaitasuna zuen bere hizkuntz ezintasunak. Bere bertute bakarra soinua jotzea zela esaten zuten. Ondo joko du, ez dut zalantzan jartzen. *Amadeus* filmean ikusi genuen bateragarriak zirela jenio musikala eta lelokeria.

Nolanahi ere, bere falta somatu dut. Askorentzat adibide argia –adibide, ez eredu-bihurtu zen denbora gutxian. Hasteko, euskaltzaleentzat. Euskara ikastea zaila dela? Hor genuen froga, ama hizkuntza gaztelania kaskarra izanda ere, ikas daitekeela euskara, maila kaskar berean. Zertarako ikasi euskara? Alderdi politiko espainiar bateko buruzagi autonomiko izateko gutxienez, meritu bakar erabakigarria izan daitekeela frogatzen zuen.

Hizkuntzalarientzat batez ere oso adibide interesgarria zen berea. Psikolinguistentzat kasu argia zen arrazoibidearen eta hizkuntzaren arteko harreman estuaren adibide gisa. Hizkuntz gaitasuna adimen koizientearen parekoa zuela bistakoa zen. Hizkuntzalaritza teorikoaren esparru guztietan agortezina zen adibideen iturri gisa: agramatikaltate era guztiak: (euskarazko) atzizki eta (gaztelaniazko) preposizioak, komunztadura; proposizio zentzugabea, tautologikoa eta kontraesankorra; kontrolik gabeko inplikazio, auresuposizio eta inplikaturak,... Zerrenda nahi haina luza daiteke eta hizkuntzalaritzatik erretorika eta argudiatzearen teoriara ere erraz eraman. Horregatik, aditu guzti horien izenean galdetu nahi dut: Non da Wally?